


Sarrigurengo
inauterietarako ipuina

BURUZ beherako egunak

Patxi Irurzun
Euskarara itzulpena: Mainer Sukuntza



HITZAURREA

Beste urte batez, helduko dira inauteriak Sarrigurenera. Baina aurten, dagoeneko desagertua dagoen baserri giroko Sarriguren horretatik datozen sinbolo eta pertsonaiekin datoz.

Inauterietako ostiralean, baserri girokoak bere espazioa hartuko du berriro. Arauak aldatuko dira. Lurrari negua amaitzen doala iragarriko diogu eta bukaeran Zakuton erreko dugu zaharra erretzeko eta izpiritu gaiztoak aldentzeko.

Errealitatearen eta fikzioaren artean dagoen ipuin honen bidez, gaurtik aurrera inauterietan lagunduko gaituzten pertsonaiak ezagutzera eman nahi ditugu. Idazlea eta gure bizilaguna den Patxi Irurzunek idatzi du aitzinako bizimodua nolakoa izan zitekeen deskribatuz, bizilagun horiek horren modu ezberdinean bizi zirenean.

Zakuton, jauntxoa, kapataza, apaiza, nekazariak, hartza, artzain ezkongabea, haurrak, ijitoak, akerrak... Pertsonaia hauek guztiak dira gure herriaren historiaren parte. Agertu zaitezte berriro eta has daitezela inauteriak!!



Gure esker ona Manu eta Helena Gorrizi argazkiengatik eta zenbait oroitzapenengatik.

Ipuinaren © Patxi Irurzun 2017 /Pertsonaien marrazkiak: © David Satrustegui
Euskarara itzulpena: Maider Sukuntza/ Kolorea eta disenua: David Beré

BURUZ BEHERAKO EGUNAK

Patxi Irurzun

Itzulpena: Mainer Sukunza

—Raka-raka!

Eta:

—Tolon, tolon!

Hau da gogoratzen dudana, aspaldi Sarriguren eta bere inauteriak nolakoak ziren galdetzen didazuenean, oraindik lau katu bizi ginenean eta supermerkatuak, polikiroldegia gari zelaiak zirenean, eta oraindik inori bururatu ez zitzaionean haizea izozkia jaten ari den hartz polarraren arnasotsa dirudien lekuan eskola eraikitzea, ez al zaizue iruditzen?

—Raka, raka!

Eta:

—Tolon, tolon!

Zarata.

Kalaken eta zintzarrien zarata.

Gazteok, hau da gogoratzen dudana. Sortzen genuen zalaparta. Eta nola, egun batzuetan, horren ongi pasatzen ez zutenak apaiza, kapataza eta jauntxoak zirela...

Finean, mundua hankaz gora.

Agian ez didazue sinetsiko, baina Sarrigurenen orduan bi edo hiru etxe zeuden. Eta gure gurasoak eta haien gurasoak bertan bizi eta lurrak landu bazituzten ere, ezer ez zen gurea, jauntxoarena baizik, ia inoiz ikusten ez genuen jaunarena, edo ikusten bagenuen oilo edo txerri bat hartzera zetorrelako zen, edo billete sorta bat, pixka bat koipetsua zen kapatazak ematen ziona, garia saltzen irabazitako dirua.

Guk landatu eta zaindu eta bildu genuen garia.

—Raka-raka!

Eta:

—Tolon, tolon!



Hau da gogoratzen dudana. Eta negua amaitzean izaten zela, ijitoek ibai ondoan kanpatzen zutenean. Eta gau batzuetan, Nicaxiok, artzain mutilzaharrak, menditik jaitsi eta gurekin afaltzen zuela eta gurasoek edalontzia ardoz betetzen ziotela, behin eta berriz, behin eta berriz, kantatzera animatzen zen eta txiste berdeak kontatzen hasi eta emakumez jantzi arte... Eta guztiok barre ederrak botatzen genituela, munduko emakume itsusiena zelako. Nicaxio, berez, oso gizon lotsatia zelako, urtean zehar bakarrik bere ardiekin hitz egiten zuena.

Mundua hankaz gora, bai.



Gau batzuetan, Nicaxio artzainak, panpina bat ere egiten zuen, zaku batzuk lastoz betez eta kapela zahar bat jarritz, eta su bat pizten genuen eta ondoren *zakuton* izena jartzen genion panpina hura erretzen genuen. Gustuko nuen usai hori, lasto errearena, baita ardien usainarena ere, hurrengo egunean, Nicaxio, artzain mutilzaharraren artaldeak, mendira itzultzen zenean, bideetan barna utzitakoa.

—Raka-raka!

Eta:

—Tolon, tolon! — zintzarriak astintzen genituen, kongitoen modukoak ziren kaka beltz eta txiki horiek zapaldu bitartean, eta kalakak ere indarrez biratzen genituen, batez ere kapatazaren etxe azpitik pasatzen ginenean, edo Burlataraino jaisten ginenean eta jauntxoaren jauregitxoaren lorategietan sartzen ginenean, edo Badostainera igotzen ginenean eta apaizaren leiho azpian jartzen ginenean.

—Lotsagabekoak, alprojak, gaizki-ikasiak! —oso haserre leihora ateratzen zen—. Harrapatzen dudana Olatz-Txipira bidaliko dut! —makil batekin mehatxatzen gintuen, eta gu beldurtuta, korrika ateratzen ginen. Olatz-Txipi errepidearen beste aldean zegoen erreformatorio bat zelako, izugarria izan behar zuen, gurasoak gurekin asko haserretzen zirenean esaten baitziguten: “Zer nahi duzu, Olatz-Txipin bukatu?”.

—Raka-raka!

Eta:

—Tolon, tolon! —ahal genuen zarata egiten genuen, eta akordatzen naiz, igarotzen ginenean, gure zintzarriak eta kalakak entzutean, galburuek nagiak botatzen zituztela eta eguzki-izpiek koloretako loreak margotzen zituztela zuhaitzen adarretan, eta landurtza apurtuz, txipak eta zapaburuak putzu zein erreketan esnatzen zirela...





—Zergatik ez da izanen bizitza orain bezalakoa?—galdetzen nion orduan neure buruan. Hankaz gorako horiek baitziren inork imajina dezakeen askatasunarekin antza handiena zutena, ez al zaizue iruditzen?

Eta akordatzen naiz, apaizarengandik ihesi ijitoek kanpatzen zuten ibairaino heltzen ginenean, haur batzuk gurekin elkartzen zirela eta oso bitxiak iruditzen zitzaizkigula, horren beltzaranak edo horren ile-horiak, ile luzearekin eta koloretako arropekin. Eta isilpean bekaizten genituen, haur horiek ez zihoazelako eskolara ezta ile-apaindegira ere, eta orga estalietan bizi ziren eta ekialderantz bidaiatzen ziren beti.

—Raka-raka!

Eta:

—Tolon, tolon!— gure zintzarrien eta kalaken zaratarekin bat egiten zuten, haiek lapikoak, zartaginak, pertzak kolpatuz, asko zituzten, haien gurasoak hauek biltzen joaten baitziren konpontzeko.

Eta uste dut gogoratzen dudala, bai, galdetzen badidazue gazteok, ijito horiek hartz bat ekartzen zutela haiekin. Ez, ez zen hartz polarra, eta ez zituen izozkiak jaten, baina norbaitek akordeoia jotzen zuen bitartean bazekien taburete baten gainean dantzatzeko. Eta urte batean, haien ikuskizunaren ondoren, ile urdina eta izarrak ziruditen begiak zituen emakume ijito lirain bat agertu zen eta bere eskuetan kristalezko bola bat zeraman.

—Etxeak ikusten ditut, etxe asko— esan zuen, igurtziz. Bere ahotsa bularretik atera beharrean leze batetik ateratzen zitzaiola zirudien. Haurrak ikusten ditut, haur askoooo, munduko leku guztietatik etorriak. Dendak eta tabernak ikusten ditut, eta txakurrak, eta txakurrek pixa egiteko lorategiak. Aldatua ikusten dut osooooo Sarriguren, hemendik urte batzuetara—esan zuen, eta guk barre egin genuen, hori ez baitzuen inork sinesten.



Korrika hasten ginen berriz, zintzarriak astinduz eta gure kalakak biraraziz:

—Raka-raka!

Eta:

—Tolon, tolon!

Eta horixe da gazteak, orain galdetuta gogoratzen dudan guztia.

Baina ez egin kasu gehiegirik. Zaharra naiz dagoeneko eta buruak huts egiten dit, agian gauzak horrela gertatu ziren, baina agian bestela gertatu ziren, nork daki. Eta zer axola. Eta batzuetan, abestiak dioen bezala, ez dakigu mundua barrukoz kanpora dagoen edo norbera den buruz behera dagoena.

Ez al zaizue iruditzen?

AMAIERA





Buruan zakua duen Sarrigurengo bizilaguna, normalean eguneroko lanak egiteko erabiltzen zuena. Gure inauterian ere omenaldi moduan eramanen dugu.


***Vecino de Sarriguren con un saco en la cabeza, con el que habitualmente hacían las faenas.
En nuestro carnaval lo llevaremos también a modo de homenaje.***

Personajes del carnaval de Sarriguren

Sarrigurengo inauteriko pertsonaiak




Zakutõn




Jauntxo



Apaiza



Kapataz



Nekazariak



Artzain
mutizaharra



Mukizuak



Hartza



Ijitoak



Akerrak